



**2019/10/31KO UDALBATZAREN OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA**

**Eguna:** 2019/10/31  
**Hasiera ordua:** 19:00  
**Amaiera ordua:** 19:25

**Bertaratuak:**

Lehendakaria:

Lierni Altuna Ugarte –alkatea- (EH BILDU)

Zinegotziak:

EH BILDU UDAL TALDEA:

Santiago Balantzategi Ugarte

Ana Maria Martiarena Arregi

Gorka Astondoa Altuna

Maria Cristina Etxenausia Irure

EAJ/PNV UDAL TALDEA:

Pedro Elosegui González de Gamarra

Juan Antonio Peña Orobengoa

**Ez bertaratuak:**

Oihana Ameskoa Perez

Iban Herrarte Arana

**Idazkaria:**

Bittor Agirreurreta Murgia

Aramaion (Ibarran), Udaletxeko bilkura aretoan, goian aipatutako egun eta ordua denean, lehenengo deialdian goian aipatzen diren zinegotzi jaun andreak bildu dira Udal Plenoaren ohiko bilkura burutzeko objektuaz, Lierni Altuna Ugarte Alkate-Lehendakaria Lehendakari dela. Bilkura honetara Udalaren idazkari-kontuhartzailea, Bittor Agirreurreta Murgia, bertaratu da.

Lehendakariak, quoruma dagoela egiaztatuta, hasiera eman dio bilkurari eta aztergaien zerrendan jasotako gaiak jorratzeari ekin dio Udalbatzak:



## AURKIBIDEA

1. ONARTZEA, BADAGOKIO, AURREKO BILKURATAKO AKTAK. ....	3
2. DEKRETUEN BERRI EMATEA. ....	3
3. 2018KO ARAMAIOKO ERABILERA ANITZEKO UDAL GAZTE ZENTROAREN EGOKITZE LANEN KONTRATUAREN ESLEIPENA ONARTZEA. ....	3
4. HASIERAKO ONARPENA EMATEA 2020 URTERAKO ORDENANTZA FISKALEN ALDAKETARI. ....	3
5. HASIERA EMATEA 6 POLIGONOKO 66, 68, 548 ETA 549 PARTZELEN ARTEKO BIDEAREN DESAFEKTAZIO ESPEDIENTEARI. ....	5
6. GALDERAK ETA ESKAERAK. ....	6



## **1. ONARTZEA, BADAGOKIO, AURREKO BILKURATAKO AKTAK.**

Alkate-Lehendakariak 2019ko uztailaren 18an; irailaren 13an eta urriaren 15ean egindako ezohiko bilkuretako eta irailaren 26an egindako ohiko bilkurako akten gainean inork oharrik ote duen galdetu du.

Inork akta horiei buruz oharpenik ez duenez, lehendakariak aktak onartzeko bozketa deitu du eta aho batez onartu dira, 2568/1986 Errege Dekretuaren, azaroaren 28koaren, Toki Erakundearen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Eraentza Juridikoaren Erregelamendua onartzen duenaren 91. artikuluan ezarritakoaren arabera.

## **2. DEKRETUEN BERRI EMATEA.**

Udalbatza, besterik gabe, azken ohiko bilkuratik egin diren dekretuen jakitun gelditu da (123/19tik 282/19ra).

## **3. 2018KO ARAMAIOKO ERABILERA ANITZEKO UDAL GAZTE ZENTROAREN EGOKITZE LANEN KONTRATUAREN ESLEIPENA ONARTZEA.**

Alkateak hitza hartu eta gogorarazten du, 2019ko uztailaren 18an egindako bilkuran, besteen artean, ondokoa ebatzi zuela udalbatzak: Hasiera ematea, erabilera anitzeko udal gazte zentroaren egokitze lanen kontratua esleitzeko espedienteari eta, hartara, hasiera ematea kontratua esleitzeko prozedurari.

Halaber, 2019ko irailaren 13an egindako osoko bilkuran, espediente osatzen duten txosten eta agiriak aztertu eta oniritzia eman ondoren, udalbatzak onetsi egin zuen ERABILERA ANITZEKO UDAL GAZTE ZENTROAREN EGOKITZE LANEN KONTRATUA lehiaketa bidez emateko espediente, gastua onartu eta irekiera eman zion lizitazio-prozedurari.

Dagokion prozedura jarraitu eta gero, alkate-lehendakariak aurkezten du, aipatutako kontratua esleitzeko jardunbideko kontratazio mahaiak udalbatzari egiten dion erabaki proposamena:

“**Lehena.- INDENORT PV S.L.U.** enpresari esleitzea, ERABILERA ANITZEKO UDAL GAZTE ZENTROAREN EXEKUZIO LANAK EGITEKO OBRA KONTRATUA. Kontratuaren prezioa izango da 178.871,49.-€ gehi %21eko BEZari dagozkion 37.653,01.-€, hau da, guztira **216.434,50.-€**. Bestalde, lizitatuzaileak egindako eskaintzarekin bat, lanen exekuzio epea **5 hilabetekoa** izango da, zuinetaren egiaztapen akta sinatu eta biharamunetik kontatzen hasita; lanen berme epea 10 urte gehiagokoa izango da, hots, **11 urteko** berme epea; eta, **eskaintzan adierazitako ingurumen irizpideekin** bat exekutatu du. Aurrekoetz gain, kontratuaren exekuzioan kontuan hartu beharko dira, lizitatuzaileak bere proposamenean eskainitako **hobekuntzak**.

**Bigarrena.-** Kontratu honen arduradun izendatzea Oier Ezquerria Ibarra jauna, udala aholkatzen duen arkitekto teknikoa (edota, badagokio, bere ordezkia), 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoaren Kontratuenak, 62 artikuluan aurreikusitako funtzioekin.

**Hirugarrena.-** Kontratu formalizatzeko dei egitea esleipendunari, datorren azaroaren 8an alkatetzaren bulegoan goizeko 12etan bertaratu dadin. Aldi berean, alkatea eskuordetzea kontratua sinatu eta esleipena formalizatzeko.

**Laugarrena.-** Interesdun guztiei ematea adjudikazioaren berri, eta erakundearen kontratatzaile-profilean argitaratzea.”

Bozketa deitu eta, Udalbatzak, bertaraturako zinegotzi guztien aldeko botoarekin, ERABILERA ANITZEKO UDAL GAZTE ZENTROAREN EXEKUZIO LANAK EGITEKO OBRA KONTRATUA lehiaketa bidez emateko jardunbideko kontratazio mahaiak egindako erabaki proposamena, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.

## **4. HASIERAKO ONARPENA EMATEA 2020 URTERAKO ORDENANTZA FISKALEN ALDAKETARI.**

Alkateak adierazten du, udal zerga ordenantzetan aldaketak egin beharra aurreikusten dela 2020 urteko ekitaldi ekonomikora begira, dela arauak agintzen duelako, dela zerbitzuen kostuek gora egin dutelako, dela egungo egoerara egokitu beharra dagoelako.



Besterik gabe, aurkezten du Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordeak Udaltzari egiten dion erabaki proposamena, 2020ko urtarrilaren 1ean indarrean sartuko diren ordenantza fiskalen aldaketari buruz:

“**Lehena.**- Ikusirik, beste erakunde ekonomiko batzuk (ADEGI, FUNCAS,...) egindako txosten eta aurreikuspenen arabera KPIren igoera %1ekoa izango dela, ondoren zehazten diren zerga eta tasa ordenantzetan ondorengo aldaketak egitea proposatzen da, hitzez hitz:

### 1.- TRAKZIO MEKANIKOZKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGAREN ORDENANTZA

Artikulu bakarra. Aldatu egiten da trakzio mekanikozko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duen Ordenantza Fiskalaren 6.1 artikulua, honela idatzita geratu dadin:

1.- Tarifen taula honen arabera eskatuko da zerga.

POTENTZIA ETA IBILGAILU MOTA	KUOTA/EUROAK
A) Turismoak:	
8 zerga zaldi baino gutxiagokoak:	23,21 €
8 eta 11,99 zerga zaldi bitartekoak	61,64 €
12 eta 15,99 zerga zaldi bitartekoak	132,37 €
16 eta 19,99 zerga zaldi bitartekoak	171,90 €
20 zerga zalditik aurrera	229,50 €
B) Autobusak:	
21 plaza baino gutxiagokoak	153,27 €
21 eta 50 plaza bitartekoak	218,28 €
50 plazatik gorakoak	272,84 €
C) Kamioiak	
1.000 kg baino karga erabilgarri txikiagoa dutenak	77,79 €
1.000 eta 2.999 kg bitarteko karga erabilgarria dutenak	153,27 €
2.999 kg eta 9.999 kg bitarteko karga erabilgarrikoak	218,28 €
9.999 Kg baino karga erabilgarri handiagoa dutenak	272,84 €
D) Traktoreak:	
16 zerga zaldi baino gutxiago	31,52 €
16 - 25 zerga zaldi	49,54 €
25 zerga zaldi baino gehiagokoak	148,66 €
E) Trakzio mekanikozko ibilgailuek tiratutako atoi eta erdi-atoiak:	
750 eta 1.000 Kg bitarteko karga erabilgarria dutenak	32,50 €
1.000 eta 2.999 kg bitarteko karga erabilgarria dutenak	51,08 €
2.999 Kg baino karga erabilgarri handiagoa dutenak	153,27 €
F) Bestelako ibilgailuak:	
Ziklomotorrak	8,14 €
125 cm <sup>3</sup> edo gutxiagoko motozikletak	8,14 €
125 eta 250 cm <sup>3</sup> bitarteko motozikletak	13,92 €
250 eta 500 cm <sup>3</sup> bitarteko motozikletak	27,87 €
500 eta 1.000 cm <sup>3</sup> bitarteko motozikletak	58,12 €
1000 cm <sup>3</sup> baino gehiagoko motozikletak	118,94 €

### 2.- LANDA-BIDE ETA AUZO-BIDEETAN IBILGAILU ASTUNEN ERABILERAREN ETA LANDA-BIDEEN ZABALTZEAREN GAINEKO ORDENANTZAREN ZENBATEKOEN EGUNERATZEA.

Landa-bide eta auzo-bideetan ibilgailu astunen erabileraren eta landa-bideen zabaltzearen gaineko Ordenantza Erregulatzailan agertzen diren zenbatekoei %1eko igoera aplikatzea, hurrengo eran:

	Jatorrizko zenbatekoa (euroak)	Eguneratutako zenbatekoa (euroak)
Tasa	0,41	0,42
Kargalekua	0,21	0,22
Gutxiengo tasa	40,63	41,04
Fidantza	1,62	1,63
Gutxiengo fidantza	406,29	410,35

### 3.- HIRI HONDAKIN SOLIDOAK BILDU ETA ERAMATEKO ZERBIZUA ARAUTZEN DUEN ZERGA ORDENANTZA

Kontzeptu guztiek %4ko igoera jasaten dute.



KONTZEPTUA	EGUNERATUTAKO ZENBATEKOA
- Etxebizitzak	63,75 €
- Lokal profesionalak	95,63 €
- Merkataritza, landetxe, tailer mekanikoak eta nekazal ustiategiak	127,50 €
- Elkarte gastronomiko, taberna, jatetxe eta hotelak	159,38 €
- Industria eta hezkuntza zentroa	223,10 €

#### 4.- ARAMAIOKO UDALERRIKO ABELTZANTZA USTIAKETA ARUTZEN DITUEN ORDENANTZA.

8 Artikuluko lehenengoko atalak honelako idazkera izango du:

“8.1. Eskatzaileak ganadu ustiapena Aramaion izatea edo Aramaioko auzokidea izatea, hau da, dagokion erroldan auzokide egoiliar gisa inskribaturik egotea. Horretarako etxebizitza irekia izan behar du gutxienez sei hilabete jarraian.”

**Bigarrena.-** Uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauko 16 artikuluan ebatzitakoarekin bat, jakinaraztea behin behineko izaeraz onartu diren zerga ordenantza eta tasak arautuko dituen ordenantzako testua, apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 49.b). artikuluan erabakitakoarekin bat (41/1989 Foru Arauko 50. artikulua batekin bateratsu), jendearen eskura jarrita daudela, udaletxeko bulego orokorrean, 30 egunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, interesdunek egoki irizten dituzten erreklamazioak aurkezteko.

**Hirugarrena.-** Jakinaraztea, halaber, erreklamaziorik ez badela aurkezten erakustaldi publikoaren epearen barruan, erabakia behin betiko onartutzat hartuko dela.”

Besterik gabe, alkateak bozketa deitu eta Udalbatzak, bertaratutako zinegotzi guztien aldeko botoarekin, aho batez, Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordearen proposamena, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.

#### 5. HASIERA EMATEA 6 POLIGONOKO 66, 68, 548 ETA 549 PARTZELEN ARTEKO BIDEAREN DESAFEKTAZIO ESPEDIENTEARI.

Alkateak aurkezten du, Hirigintza Batzordeak egindako erabaki proposamena, Zabola auzoko iparraldean kokatutako bide zaharraren desafektazio buruz, kontsideratzen baita ez dela bide aproposa ohiko erabilera egoki bat egiteko:

“Ikusirik, batetik, udal-arkitektoak idatzitako txosten teknikoak, 2019ko urriaren 22 data duena eta, bestetik, EKAIN aholkularitzak egindako txosten juridikoa, 2019ko urriaren 23an.

Ikusirik, justifikatuak daudela aukera eta legezkotasuna, hasiera emateko Zabola Auzoko iparrian kokatutako bide zaharraren desafektazio espedienteari, kontsideratzen baita ez dela bide aproposa ohiko erabilera egoki bat egiteko, landarediaren artean galduta dagoelako, bidearen arrastoak lurrairean gainean argiak ez direlako eta, baita ere, azken hamarkadetan ez delako erabilera publikorako erabili. Gainera, justifikatzen da, lau lursail mugakideek beste domeinu publikoko bide batzuetatik sarbidea eta erabilera publikoa daukatela, hots, ezaugarri egokiak daukatena aipaturiko erabilera publikoa egiteko.

Ikusirik, horrela deskribatu dela txosten teknikoan, desafektazioaren xede den lur saila: 117 m-ko luzera eta 1,20 eta 3 metro bitarteko zabalera irregularrekoa; azalera, aldiz, 286m<sup>2</sup>. Soberako lurzati bezala izendatu daiteke, ez delako erabilera egoki baterako aproposa, dela bere hedadura txikiagatik, dela bere forma irregularragatik, dela bere kokapenagatik.

Ikusirik, soberako lursail izendatzearen ondorioz, jabe mugakideei zuzeneko salmenta bidez eskaintzea ekarriko duela, eta ekainaren 13ko 1372/86 Errege Dekretuaren 115 artikulua batekin bat, hainbat jabe mugakide izaterakoan, salmenta egingo dela, irizpen teknikoaren arabera, ondorengo partzelen dispozizioa lurzorua antolamendu irizpide arrazoizkoenean uzten duen eran.

Eta udal zerbitzu teknikoen txostenean esaten den moduan, lurzoruko antolamenduko irizpide arrazoizkoenak jarraituz, egokitasunagatik gomendatzen da, 6 poligonoko 66 lursaileko titularrari besterentzea, 6 poligonoko 549 eta 548 lursailak kota desberdinean kokatuak baitaude eta, 68 lursailari dagokionez, mugakidea izan arren, luzera txikiagoan egiten du muga.



Ikusirik, eskatu zaiola Arabako Foru Aldundiari, desafektazioaren eta soberakin lursail izendapenaren xede den lursailaren balorazio txostena, partzelaren balioa era fede-emalean zehazteko eta, horren arabera, egun erabilerarik ez duen bidearen balio justua erabakitzeke.

Kontuan hartuz, 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki-araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 22, 47 eta 81 artikulua eta horiekin bat datozenak; eta, baita ere, ekainaren 13ko 1372/86 Errege Dekretua, onartzen duena Toki-Erakundeen Ondasunen Erregelamenduaren 7, 8, 109 eta 115 artikulua.

Aramaioko Udalbatzak, 2019ko urriaren 31n egindako Osoko Bilkuran, korporazioko kideen gehiengo absolutuaren aldeko bozkarekin, **EBATZI DU**,

**Lehena.-** Hasiera ematea Zabola Auzoko iparrean kokatutako bide zaharraren desafektazio espedienteari; bidearen neurriak dira, 117 m-ko luzera eta 1,20 eta 3 metro bitarteko zabalera irregularrekoa; azalera, aldiz, 286m<sup>2</sup>. Bere mugakideak dira, Ekialdetik 6 poligonoko 66 partzela eta etxebizitza; Iparretik, 6 poligonoko 68 partzela; Hegoaldetik, 6 poligonoko 548 partzela; eta, Mendebaldetik, 6 poligonoko 549 partzela. Hori guztia, landarediaren artean galduta dagoelako, bidearen arrastoak luraren gainean argiak ez direlako eta, baita ere, azken hamarkadetan ez delako erabilera publikorako erabili. Gainera, ez da beharrezkoa, partzela mugakideek beste domeinu publikoko bide batzuetatik sarbidea eta erabilera publikoa daukatela eta, horiek, oso egoera onean daude mantenu aldetik, erabilera publikoa egiteko.

Halaber, soberako lursaila deklaratzeko, ez delako erabilera egoki baterako aproposa, dela bere hedadura txikiagatik, dela bere forma irregularragatik, dela bere kokapenagatik. Baita ere, proposatzea, erabilera egoki baterako aproposa ez denez soberako lursaila deklaraturako partzela, 6 poligonoko 66 partzelaren titularrari eskaintzea besterentze zuzena egiteko, txosten teknikoak egokiro adierazten baitu, lurzoruaren ordenazioaren irizpideak jarraituz, hori dela erabaki aproposena. Aurreko guztia, Arabako Foru Aldundiak ebazten duen balorazio txostenean zehaztuko den prezioarekin bat.

**Bigarrena.-** Arabako Foru Aldundiak dagokion balorazio txostena egin ondoren, argitaratzea dagokion iragarkia ALHAOn, iragarki taulan eta egunkari batetan eta, HILABETEZ jendaurreko informazio epeari hasiera ematea, interesdun orok azter dezan eta egoki deritzon alegazioak egin ditzan.

Balorazio txostenean ondorioztatzen bada lursailaren balioa dela Korporazioaren baliabide arruntren %25a baino handiagoa dela, baimena eskatzea Arabako Foru Aldundiari, soberako lursaila deklaraturako luraren besterentze zuzena egiteko eta, bestela, komunikatzea Arabako Foru Aldundiari, soberako lursaila deklaraturako luraren besterentze zuzena egingo dela eta, lurzoruaren ordenazioaren irizpideak jarraituz, mugakide egokienari salduko zaiola, dagokion txosten teknikoarekin bat.

**Hirugarrena.-** Arabako Foru Aldundiak dagokion balorazio txostena egin ondoren, honako erabakiaren berri ematea, gainerako txosten tekniko, balorazioko eta juridikoekin batera, mugakide diren partzelen titularrei. Aldi berean, HILABETEKO epea ematea jakinarazpena egiten zaienetik kontaktzen hasita, egoki ikusten dituzten adierazpenak egin ditzaten egingo den besterentze zuzenari buruz eta, batez ere, lurzoruaren ordenazioaren irizpideak jarraituz, mugakide egokienari adierazten duen urriaren 22ko txosten teknikoari buruz.

Erabaki hau tramite egintza bat denez, bere aurka ezingo da inolako errekurtsorik jarri, betiere, herri administrazioen administrazio prozedura erkidearen 39/2015 legearen 112.1 artikuluan ezarritakoaren kaltetan gabe, eta interesdunak, hala badagokio, bidezkotzat jotako beste edozein egintza egitearen kaltetan gabe."

Besterik gabe, alkateak bozketa deitu eta Udalbatzak, bertaratutako zinegotzi guztien aldeko botoarekin, aho batez, Hirigintza Batzordearen proposamena, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.

## **6. GALDERAK ETA ESKAERAK.**

Ez daude.

Azkenik, eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak bukatutzat eman du osoko bilkura hau, goiburuan adierazitako egunean eta orduan, eta nik Aramaioko bitarteko idazkari-kontuhartzaileak, hala ziurtatzen dut, alkatearen oniritziarekin.



---

Esp. kodea.: 2019APAK0014

Gaia: 2019/10/31 UDAL PLENOAREN OHIKO BILKURA

---